



DANI BLANCO

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Europar Batasuna obretan

EUROPAR BATASUNEAN (EB) federalismo politikoak ez du inoiz indar handirik izan. Erakunde hau sortzeko eta garatzeko arrazoi nagusia ekonomikoa izan da. Baina, integrazio ekonomikoko gehienek kaltetu egiten dituzte eskualde pobreenak, aberatsen mesedetan. Horregatik, integrazio adibide asko bortxaz gauzatu dira, AEBetako Gerra Zibilean Iparralde federalistak Hegoalde konfederalistari garaitu zionean bezala. Beste batzuetan, integrazioak baketsuak izan dira, Alemaniako Mendebaldeak Ekialdea ekonomikoki kolonizatu zuenean bezala.

Eskualde pobre batek integrazioa onartzeko motibo desberdinak izan ditzake: ondorio ekonomikoaren gaineko ezjakintasuna; eskualde aberatsago bati lotuz laguntza ekonomikoa erdiesteko esperantza; edota nazio irudikatu baten batasuna bultzatu nahia. Halere, bortxaz edo bakean burutu diren integrazio gehienek homogeneousitasun linguistiko gradu altua dute beren alde. Horri esker, lurralde pobreetatik aberatsetara doan emigrazioa ihes-hodi bezala funtzionatzen du protestak bartzeko. Alemania batu denetik, Ekialdeko gazteriak erruz emigratu du Mendebaldera.

Estatu-rik gabeko nazioentzat federalizazio prozesutik kanpo gelditzea oso arriskutsua izan daiteke, horregatik estatua eskuratzeko premia. Eskoziak eta Kataluniak beraien bidea hasi dute

Egunero EBn Alemaniako batasunaren antzeko fenomeno bat bizi dugu kamera geldoan. Proiektu federal ekonomikoaren sinbolaria euroa da. Maila ekonomiko oso desberdinetako herrialdeek moneta berdina hartu dute eta gauzatu egin dute EBk inposatutako pribatizazioen agenda. Noren mesedetan baina? Esloveniako enpresek ez dute gaitasunik Alemaniako pribatizatutako enpresa publikoak erosteko. Aldiz, alemanek erraz asko erosi ditza-

kete esloveniarrak. EBk eskualde aberatsak gehiago aberastu eta pobreak gehiago pobretu ditu.

Baina, EBk arazo bat du, munduko gaitzatzeko integrazio prozesu gehienetan ez bezala, bere baitan aniztasun linguistiko oso handia du eta, beraz, emigrazioaren ihes-hodiak ez du behar bezala funtzionatzen. EBko agintariek integrazio ekonomikoa laguntzeko ezinbestekoa dute hertsiki lotuta dauden integrazio politiko eta kulturalen sakontzea. Bidea ez da erraza, potentzia ekonomiko eta politikoen artean konpetentzia dagoelako. Batzuek (Britainia Handiak, Suediak...) erabaki zuten ez hartzea euroa, ziurrenik Alemaniarekin oso lotuta ikusten zutelako. Hausnarketa horren hurrengo fasea da Britainia Handian irekita dagoen eztabaida: EB barnean mantendu lotura malgukin edo atera. 2015ean kontserbadoreek irabazten badituzte hauteskundeak, David Cameron-ek eztabaida argitu egingo dela iragarri du 2017an egingo litzatekeen erreferendum batekin. Britainia Handiak hartuko lukeen erabakia irtetea balitz, beste herrialde batzuek antzeko hautua egin dezakete. Ondorioz, EBko federalizazio proiektuak abiadura azkartua hartuko luke estatuaren oinarrituta.

Bien bitartean, estaturik gabeko nazioentzat federalizazio prozesutik kanpo gelditzea oso arriskutsua izan daiteke, horregatik estatua eskuratzeko premia. Eskoziak eta Kataluniak beraien bidea hasi dute. Flandriak lurraldetasunarekin arazo bat du, baina bidea urratzen ari da sezesioaren atari gisa konfederazioa proposatuz. Euskal Herriak ordea, arazo latza du lurraldetasunarekin; ez da bakarra, aipaturiko beste nazioen alboan barne aniztasun handiagoa du eta abertzaleek ez dute gutxieneko proiektu konpartiturik ikuspegi sinbolikoan eta estrategikoan. Gure etxean edota Europan, nork hartuko du seriozki euskal estatu baten proiektua bere oinarritzko sinboloak ere eztabaidan dituen? Euskal Herria/Euskadi/ Nafarroa, ikurrina/Nafarroako bande-
ra... ■

